


Euskal AEn gizon eta emakumeen bizi-itxaropena maximo historikora iritsi da 2019an

Emakumeen bizi-itxaropena Europar Batasuneko baina ia 3 urte handiagoa da

Eustatek prestatutako gertakari demografikoak aztertzeke adierazleen emaitzen bidez, gure erkidegoko gizonezko jaioberria 80,8 urte biziko dela aurreikus dezakegu, eta ezkontzeko % 47ko probabilitatea izango duela. Emakumea bada, bizi-itxaropena luzeagoa izango da, 86,6 urtekoa, ezkontzeko probabilitatea % 50etik gorakoa izango da eta seme edo alaba bakararra izango du. Bi kasuetan, bizitza osoan zehar, hamar aldiz baino gehiagotan aldatuko dute bizilekua.

Bizi-itxaropena jaiotzean Euskal AEn



Iturria: Gertakari demografikoak aztertzeke adierazleak

Euskadiko AEn gizon eta emakumeen bizi-itxaropena etengabe areagotu da. 1976ko adierazleak aintzat hartuta (69,6 urteko eta 76,9 urteko bizi-itxaropena gizon eta emakumeetan, hurrenez hurren) ikus daiteke emakumeen bizi-itxaropena orain 9,7 urte handiagoa dela eta gizonena 11,2 urte handiagoa dela. Gizonek igarotako urte bakoitzean 3,1 hil gehiago irabazi dituzte, harik eta 80,8 urteetara iritsi arte, eta emakumeek, 2,7 hil gehiago urte bakoitzeko, 86,6 urtera iritsi arte. Bi sexuetako bizi-itxaropenen arteko aldea 5,8 urtera murriztu da; duela 25 urte egon zen alde handiena, 8,7 urtekoa. Nolanahi ere, herrialde garatu gutxik dute bizi-itxaropen hain altua, bereziki emakumeen kasuan.

Tumoreak dira bizi-itxaropenaren urteetarako mehatxu nagusia. Haiek erabat ezabatzea lortuko balitz, gizonen bizitza 4,4 urte luzeagoa izango litzateke eta emakumeena, 3 urte luzeagoa. Arinagoak dira, berriz, heriotzaren kanpo-kausiek eragindako kalteak; bizitzako 7 hil gutxiago gizonen kasuan eta 3 hil gutxiagokoa emakumeetan. Zifra horiek murriztu egiten dira trafiko-istripuen kasuan: hilabete gizonetan eta kopuru oso txikia emakumeetan.

Ugalkortasunean emakume bakoitzeko jaiotza-indize baxua eta amatasunerako batez besteko adin altua konbinatzen dira

Euskadiko AEko ugalkortasuna sekula ez bezalako muga baxuetan dago erkaketa egitean; izan ere, 2019an, batez bestekoa 1,3koa izan da emakume bakoitzeko, Europar Batasuneko baxuagoa (1,6), eta 1976an izan zen batez bestekotik (2,7 jaiotza) oso urrun, bai eta belaunaldi-txandakatzerako behar den kopurutik (2,1) oso urrun ere. Indize baxuena Bizkaian dago, emakumeko 1,2 jaiotza; Araban, 1,4, eta Gipuzkoan, 1,3.

Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleen datuetan oinarrituta, aurreikusteko modukoa da batez beste emakume batek 0,6 lehen jaiotza izatea –alegia, emakumeen herenak ez luke ondorengorik izango–, 0,5 bigarren jaiotza eta 0,2 hirugarren edo ondorengo jaiotza. Hamar emakumetatik ia bik hirugarren edo ondorengo umea izango duela esateak % 80ko beherakada erakusten du 1976aren aldean.

Euskadiko emakumeen ugalkortasunaren beste ezaugarrietako bat da amatasunaren batez besteko adin altua; 33 urtekoa da, Europar Batasuneko batez besteko adina baino ia 3 urte gehiagokoa eta 1976an baino 4,4 urte gehiagokoa. Arabak du beste bi lurraldeak baino batez besteko adin pixka bat baxuagoa (32,6 urte); Bizkaian batez bestekoa 33,1 urtekoa da eta Gipuzkoan, 32,9koa.

Ezkontzeko batez besteko adina 35 urtekoa da bi sexuetan

2019ko ezkontza-tasen arabera egingo liratekeen lehen ezkontzen ehunekoa % 46,7koa izango da gizonen artean eta % 50,5ekoa emakumeen artean. Horrek esan nahi du jaitsiera handia izango litzatekeela 2001eko indizeen aldean, % 56,1ekoa eta % 59,5ekoa, hurrenez hurren, eta are handiagoa izango litzateke jaitsiera, 1977ko datuekin erkatuz gero –eskuragarri dauden zaharrenak–, gizonen % 100 inguruaren eta emakumeen % 93tik gorakoen artean baitzegoen ehuneko hori. Beste ikuspuntutik ikusita, datu horiek adierazten dute gizonen % 53 baino gehiago eta emakumeen erdia baino zertxobait gutxiago ezkongabe egongo litzatekeela.

Ezkontza-tasaren azterketak nabarmentzen du oraindik ere ezkontzeko adinak gora egiten jarraitzen duela. Lehen aldiz ezkontzeko batez besteko adina 37,4 urtekoa da gizonen kasuan (1977an baino 10,7 urte geroago) eta 35,5 urtekoa emakumeen kasuan (1977an baino 11,3 urte gehiago).

Ugalkortasunarekin gertatzen den bezala, ezkontzen kontzentrazio handia dago adin jakin batzuetan. 6 urtetan baino ez, 29 eta 35 urte bitartean, gizonen % 42,4 eta emakumeen % 45,8 ezkontzen dira.

Batez beste, Euskal A Eko biztanle batek 3,5 emigrazio baino zertxobait gehiago egingo ditu bizitzan zehar

Ohikoen emigrazioak probintzia barneko izaera izatea da, hau da, helmugako udalerrri abiapuntuko lurraldean bertan kokatzea; horrela gertatzen da migrazioen erdietan baino gehiagotan (2tan; guztira, 3,7 dira gizonen kasuan eta 3,6 emakumeen kasuan). Aldiz, batez beste, gizoni 1,5 migrazio dagozkie Euskal A Etik kanpora (emigrazio guztien % 41) eta emakumeek, berriz, mota horretako 1,3 emigrazio egiten dituzte (guztizkoaren % 36).

Lurraldeen arabera, aldea nahiko nabarmena da Bizkaiaren eta Arabaren artean: Arabako emigrazioen batez bestekoa 2,9koa da eta Bizkaikoa, 3,9koa pertsonako; Gipuzkoa tartean dago, emigrazioen kopurua, batez beste, 3,6koa baita. Alde horiek probintzia barruko mugikortasunaren ondoriozkoak dira; izan ere, Bizkaian 2,3 mugimendu ditu eta Araban, 0,9 baino ez. Lurraldeen arteko mugimenduetan, Araba da nabarmenena, 0,4 mugimendu baititu pertsonako, Bizkaiko kopuruaren bikoitza (0,2); Gipuzkoa tartean dago (0,3).

Emakumeen artean, emigrazioaren distantzia handitu ahala, batez besteko adina igo egiten da; beraz, lurraldean bertan mugitzen direnak gazteenak dira, 33 urtekoak, eta, Euskal A Etik kanpora emigratzen badute, batez beste 34,7 urterekin doaz. Gizonen artean, gazteenak beste lurralde batera emigratzen dutenak dira, 33,7 urtekoak, eta nagusienak autonomia-erkidegotik kanpora doazenak, 35 urterekin.

Udalerrri barruko bizileku-aldaketak direla eta, mugikortasun handiena dutenak Arabako gizon eta emakumeak dira, batez beste 7 eta 7,2 mugimendu baitituzte, hurrenez hurren; eta oso urrun dituzte Bizkaia eta Gipuzkoa, biek pertsonako 6,3 lekualdatze ingururekin, batez beste.

Emigrazioak eta bizileku-aldaketak batuz gero, bi sexuetan bizitzan zehar egindako bizileku-aldaketak, dela udalerrri barruan, dela udalerritik kanpo, 10,2 izango lirateke.

Gertakari demografikoak aztertze adierazleak. 2018/2019

Hilkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biziitxaropena jaiotzerakoan	80,8 urte	86,6 urte
Kanpo-kausarik gabeko bizi-itxaropena	81,5 urte	86,9 urte
Trafiko-istripurik gabeko bizi-itxaropena	80,9 urte	86,6 urte
Tumorerik gabeko bizi-itxaropena	85,2 urte	89,6 urte

Ugalkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Emakumezkoak	
Emakumeko batez besteko haur-kopurua	1,25	
Lehen seme-alabena	0,64	
Bigarren seme-alabena	0,46	
Hirugarren eta ondorengoena	0,16	
Amatzeko batez besteko adina	33,0 urte	
Lehen seme edo alabarena	31,9 urte	
Bigarren seme edo alabarena	34,0 urte	
Hirugarren eta ondorengoarena	34,3 urte	

Ezkontzaren adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
100 pertsonako batez besteko lehen ezkontza kopurua	46,7	50,5
Lehen ezkontzako batez besteko adina	37,4 urte	35,5 urte

Emigrazio adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Emigrazioen batez besteko adina	3,7	3,6
Euskal AEtik kanpora	1,5	1,3
Lurraldean bertan	2,0	2,0
Beste lurralde batera	0,3	0,3
Udalerrri barruko helbide aldaketak, batez beste	6,4	6,6
Emigratzeko batez besteko adina	34,5 urte	33,9 urte
Euskal AEtik kanpora	35,0 urte	34,7 urte
Lurraldean bertan	34,2 urte	33,4 urte
Beste lurralde batera	33,7 urte	33,8 urte
Helbidez aldatzeko batez besteko adina	33,4 urte	33,5 urte

Iturria: Eustat. Gertakari demografikoak aztertze adierazleak

Argibide gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62